



> Irain matxistak



Azkoitiko frontoian hartutako irudia, emakumeen Master Cup txapelketako finalean, iazko abenduan. Andoni CANELLADA | FOKU

«Neskak pilotan? Eta zein da-
go sukaldean afaria egiten?»
edo «Gaur neskek 17.00etan
jokatuko dute, gero sukaldera
joateko». Halako mezuak ira-
kur daitezke Azkoitiko Pilotari
Eguneko mutilen txapelketa-



ko Whatsapp taldean. Emaku-
mezko pilotariei egindako
irainak direla eta, mutilen
txapelketa bertan behera uz-
tea erabaki dute Azkoitiko
txapelketako antolatzaileek.
Antolakuntza taldeak, gainera,

barkamena eskatu du: «Azken
aste honetan Pelotai Eune-
ko mutilen txapelketako taldean
idatzi diren emakumezkoen
aurkako irainen harira, anto-
lakuntza taldeak barkamena
eskatzen du. Batez ere, mo-
mentuan behar bezalako
erantzun azkar bat ez eman
izanagatik. Hori dela eta, era-
baki hau hartu du antolakun-
tzak: herriko mutilen txapel-
keta bertan behera uztea.
Azkenik, berriro barkamena
eskatzen du antolakuntzak,
eta garbi utzi nahi du, azken
urteetan bezala, lanean irmo
jarraituko duela berdintasuna
sustatuz. Hemendik aurrera
hartuko diren erabakien berri
izango da aurrerantzean ere».
Mutilen txapelketa kenduta,
gainontzeko ekitaldiak bere
horretan mantendu dituzte.

Mezua idatzi dutenek ere es-
katu dute barkamena eta «gus-
tu txarreko broma» bat baino
ez zela nabarmendu dute. Al-
bisteak hautsak harrotu ditu
eta kezka sortu du, jende gaz-
tea baita mezu horiek idatzi
dituena. Bistan da parekideta-
sunaren bidea luzea dela.

> Bibradorea eta depilatzeko argizaria



Depilatzeko argizaria, bibrado-
re bat eta lima elektriko bat.
Horixe jaso dute saritzat Astu-
riasko Squash Txapelketa iraba-
zi duten emakumezkoek. Kiro-
lariak beraiek salatu dute
gertaturikoa aipatu kiroleko fe-
derazio asturiarraren aurrean,
lotsagarria iruditu baitzaie ga-
raikurraz aparte jasotako opari
sorta. Gizonezkoen kasuan, ga-



raikurra bakarrik jaso zuten. As-
turiasko Squash Federazioak be-
re aldetik, Emakumearen Insti-
tutura helarazi du kirolarien
kexa, jasotako opari sorta «se-
xista» dela iritzita. Protestak ja-
da izan dituzte ondorioak, txapel-
ketako antolakuntzako hiru
kidek dimisioa eman baitute.
Eta sare sozialetan ere harrabo-
tsa izan da.



> «Berrogei ordu berrogei minuturako»

«Ostiral arratsaldean atera eta igande goizean itzuli. 40 orduko bidaia eta pertsonako, batez beste, 150 euroko gastua espetxean dagoen lagun batekin 40 minutu partekatzeke». Sakabanaketak euskal preso politiko-en senide eta lagunengan duen eragina aletzen duen azalpen hori ia mila aldiz izan zen elkarbanatua bi egunetan.

Datuak eskutan, Joseba Permachek bere amaginarrebak



Sevillako espetxean preso dagoen lagun bati egindako bisitaren berri eman du Facebook sare sozialean. Bertan euskal preso senide eta lagunak egin beharreko bidaiak zer-nolakoak diren aletzen du. Bi eguneko epean ia mila aldiz izan ziren partekatuak lerrook, espetheen inguruan gertatzen den guztia ikusaraztea eta salatzea denon eginbeharra dela iritzita.

> Madonna, «Oihaneko zuhainetan»

Pop musikaren erreginak Eurovisioneko ikuskizunean eskainitako “Like a prayer” abestiaren sarreran Zuberoako “Oihaneko zuhainetan” abesti tradizionala dagoela dirudi.

Joan den asteburuan Tel Aviven izan zen Madonna, Eurovision jaialdiaren galan. Haren ikuskizunak zeresana eman zuen; batetik, tonua erabat galduta abestu zuelako, eta, bestetik, bandera palestinarra erakustea lortu zuelako “Future” abestian zehar.



Agertokira salto egin aurretik, monjez jantzitako berrogei bat abeslarik osatutako koroak eman zion sarrera. Hitzik gabe, ahapetik aritu ziren kantuan, baina nahikoa antza melodiaren oinarrian Zuberoako “Oihaneko zuhainetan” abesti tradizionala dagoela esateko. Joxan Goikoetxea soinu-jotzaileak eman zuen Facebook-en horren berri, Madonnaren abestiaren sarrera Euskal Herriaz mintzo den olerki baten melodia dela esanez.



> Jolastokiak

Eskoletako jolasguneak baloia-
ren joan-etorriak markatuta
eraiki eta okupatzen dira. Oro
har, mutilak baloia-
ren inguruan bildu eta neskak bazterre-
an utziz. Urteak dira nesken eta
mutilen aldetik ematen den jo-
lastokion erabilera desberdin-
dua aztertzen dela. Aztertzen
eta eraldatzen. Zenbait herri eta
eskolatan aspaldi hasi ziren au-



zia lantzen. Bide beretik, ugari
dira jolastokiaren erabilera
arauak garatu dituzten ikaste-
txeak. Espazioaren erabilera de-
sorekatua ekidin nahian ezarri
dira arauok, futbolaren presen-
tzia erregulatuz. Horren adibide
da Atxuriko eskolako jolastokia.
Parte hartzaileago egiteko boka-
zioz, pasa den asteburuan auzo-
lanean eraldatu zuten.